



VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO UDALERRIAN PRAKTIKA MODALITATEAN ENPLEGUA SUSTATZEN DUTEN UDALERRIKO ENPRESA, SALTOKI ETA PROFESIONALENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

30 urtetik beherako gazteak dira nozitzen ari garen langabezia tasa handiak gehien eragiten duen kolektiboetako bat. Gazteok, hezkuntza aldetik ondo prestatuta egon arren edozein motatako lanbideetan aritzeko, zapuztuta ikusten dute berehalako etorkizuna lanari dagokionean, ez dituztelako aurkitzen euren gaitasunekin bat datorren lanpostu bat.

Hori dela eta, Europako aginduei jarraiki, administrazio publiko guztietan onartzen ari dira hezkuntza sistema lan merkatura ahalik eta gehien hurbiltzeko neurriak eta gazteen langabezia tasa hein handi batean jaisteko neurriak.

Hartara, Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak, egoera honetaz jabetuta, zenbait ekintza burutzen ari da, ahal den neurrian langabezia gutxitzeko. Neurri horien artean dago 30 urtetik beherakoen enplegarritasuna sustatzeko praktiketako lan-kontratuei ematen zaizkien diru-laguntzak.

1. ARTIKULUA.- XEDEA

Ekimen honen xedea da oinarriak eta arauak ezartzea Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak 30 urtera arteko gazteentzako praktikaldiko kontratuen bidez enplegarritasuna sustatzeko funts galdura emango dituen laguntzentzat.

2. ARTIKULUA.- ERAKUNDE ONURADUNAK

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak funts galdura emango dituen laguntzen onuradun izan daitezkeen enpresa, saltoki eta profesionalek, honako baldintzak bete beharko dituzte, dena dela euren forma juridikoa:

- 1.- Ez egotea administrazioen edo erakunde publikoei lotuta edo haien mende.
- 2.- Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- 3.- Kontratatuak dituzten langileak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta ematea.



3. ARTIKULUA.- ENPRESA-BATERAEZINTASUNAK

Programa honetatik kanpo geratzen dira:

1. Aurreko 24 hilabeteetan kontratu mugagabearen bitartez enpresa edo enpresa multzo berarentzat lan egin duten pertsonak edo Langileen Estatutuaren 44. artikulua arabera enplegatzailea ondorengo izango litzatekeen enpresetan lan egindako pertsonak.
2. Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan lan harreman mugagabea elkarren arteko adostasunez amaitu duten langileak.

4. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Hilean 350 € emango dira lanaldi osoko 6 edo 12 hilabeteko praktika-kontratuengatik.

Laguntza hau proportzionalki gutxituko litzateke kontratazioa lanaldi partzialekoa balitz (betiere %50ekoa edo gehiagokoa bada).

Erakunde onuradun bakoitzari eman beharreko diru-laguntza, ekimen honen bidez diruz lagundu daitezkeen jarduera guztiengatik, ez da urte beteko diru-laguntza baino gehiago izango.

5. ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN EKINTZAK

12 edo 6 hilabeteko praktikaldiko kontratu baten kostua subentzionatu daiteke, gehienez 350 euroekin hilean, laugarren artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuok hasiera-datan 30 urte bete ez duten pertsonen eginez gero.

2013ko azaroaren 1etik hasi eta 2014ko urriaren 31ra arte sinaturiko kontratuak subentzionatuko dira.

6. ARTIKULUA. KONTRATATURIKO PERTSONEN BETEKIZUNAK

1. Valle de Trápaga-Trapagaranen etengabe erroldatuta egotea, gutxienez kontratuaren hasiera data baino urte bete lehenagotik.
2. Kontratuaren hasiera-datan 30 urtetik beherakoa izatea.
3. Kontratuaren hasiera-datan Lanbiden, Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe gisa inskribatuta dagoela egiaztatzea.



4. Enpresa edo erakunde onuradunaren titularrarekin edo bazkide gehiengodunekin edo enpresako gobernu organoetako kideekin ez edukitzea 2. gradura arteko odol-ahaidetasunik edo ezkon-ahaidetasunik.

7. ARTIKULUA. PROZEDURA

Eskariak normalizatutako eskabide-orri batean aurkeztu behar dira. Eskabide-orriaren atal guztiak bete behar dira, eta han eskatzen diren derrigorrezko agiriak erantsi behar dira.

Eskabide-eredua (I eranskina), non aipatzen baitira aurkeztu beharreko agiriak, interesdunen esku daude Udal honetako Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian (Maiatzaren Lehena, 1 behea) eta halaber, ikusgai egongo da Udaletxeko iragarki oholean eta udal web gunean (www.trapagaran.net).

Udal Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da, hau da, udaletxeko (Lauaxeta plaza z.g.) 1. solairuan, 9:00etatik 13:00 etara.

Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutakoa aplikatu daiteke.

Eskaera aurkezteak oinarri hauek onartzen direla suposatuko du.

Oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren biharamunetik hasi eta 2014ko urriaren 31ra arte izango da eskaera egiteko epea.

Aurkeztutako diru-laguntzen eskaerak ez badaude behar bezala beteta edo ez badituzte erantsita behar diren agiriak, enpresari, saltokiari edo profesionalari eskatuko zaio, 10 egun baliouduneko epean, akatsak zuzentzeko eta derrigorrezko agiriak ekartzeko, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela eta artxibatu egingo dela besterik gabe.

Eskaera ez da aurkeztutzat hartuko harik eta behar bezala beteta egon arte eta espedientea osorik egon arte.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, Hirigintza, Ingurumen, Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza Sailak, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziaren bidez, Informazio Batzordeari proposatuko dio diru-laguntzen esleipena, honako oinarrietan ezarritakoaren arabera, Hirigintza, Ingurumen, Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza Batzorde hori izango delarik behin behineko ebazpena emateko eskumena duen organoa. Izan ere, diru-laguntzen emakida onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da.



Diru-laguntzaren emakidaren ebazpena onartu eta hurrengo 15 eguneko epean jakinaraziko zaie onuradunei.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpena emateko aurreikusitako epea amaituta ez bazaio enpresari jakinarazi, ulertu daiteke eskatutako laguntza gaitzetsi egin zaiola.

Valle de Trápaga-Trapagarango udaleko iragarki-oholean eta web gunean argitaratuko dira emandako eta ukaturiko laguntzen zerrenda eta haien gaitzespen edo ukazioaren zergatia.

8. ARTIKULUA. AURREKONTUA IZATEA

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak udal aurrekontuan ekitaldi honetan helburu horretarako gordetako diru-kopuruarekin finantziatuko dira.

9. ARTIKULUA. EGILESTEKO PROZEDURA

Diru-laguntza eskaerak erregistroan sartu diren hurrenkeraren arabera ebatziko dira, beti ere ongi beteta badaude eta espedientea osorik badago, aurrekontuetan horretarako gordetako kredituaren mugaraino, aurreko artikuluen arabera.

Espedientearen antzinasunarentzat, kontuan hartuko da azken agiria aurkeztu den sarrera-erregistroko data.

10. ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA ETA JUSTIFIKATZEA

Honela ordainduko dira eskariei onarturiko diru-laguntzak:

1. Bakoitzari onartu zaion kopuruaren %50 arte, laguntza ematen den unean.
2. Gainerako %50a kontratazioaldia amaitzen denean ordainduko da, kontratua indarrean egon den hilabeteetako soldaten ordainagiriak eta Gizarte Segurantzako TC2-ak aurreztu ondoren.

Kontratua amaitu eta ondorengo 60 eguneko izango da justifikatzeko agiriak aurkezteko gehienezko epea.



11. ARTIKULUA. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa, saltoki eta profesional onuradunak honako betebeharrak izango dituzte:

1. Emandako diru-laguntza onartzea. Hamabost eguneko epez, diru-laguntzaren jakinarazpena jasoten duten datatik kontatzen hasita, erakunde onuradunek ez badiote espreski eta idatziz uko egiten laguntzari, onartu egin dela ulertuko da.
2. Diru-laguntza ematea funtsatzen duen jarduera egitea, Gizarte Segurantzaren alta emanda egingo delarik kontratazioa, oinarri hauetan ezarritako kontratua formalizatzeko epearen barruan.
3. Kontraturiko langileen plantillaren egonkortasunari eustea kontratuan ezarritako aldiaren zehar, hala egiten ez bada ordaindutako kopuruak erreklamatu zaielako, betebeharrak ez betetzeagatik, eta data horretan jasotzeke daukaten kopuruak baliogabetu egingo zaielako.

Probaldia ez gaitzeko langilearen baja ez zaio enpresari egotziko, baina pertsona horren ordez beste langile bat kontratatu beharko du eta kontratazio berriaren indarraldia lehenengo pertsonaren kontratu-aldiari batuta diru-laguntzaren zenbatekoa erabakitzeko denboraren bestekoa izango da.

Kasu honetan, diru-laguntzaren zenbatekoa ez da hasieran emandako diru-laguntzaren zenbatekoa baino handiagoa izango.

Gehienez 20 egutegiko eguneko epea ematen da langilea ordezkatzeko, baina ordezkapenik egiten ez bada, enpresak itzuli egin beharko du diru-laguntzaren zenbatekoa, bete gabe geratzen den kontratualdiaren proportzioan.

Diruz lagundutako langilearen ordezkapenaren agiriekin batera, honako agiriak ere aurkeztu beharko dira:

- Ordezkatu den pertsona Gizarte Segurantzaren baja emanda dagoela adierazten duen agiriaren kopia.
- Ordezkoa Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela adierazten duen agiriaren kopia.
- Ordezkoaren NANaren fotokopia.
- Ordezkoaren lan-kontratuaren kopia.



4. Udalak egiten dituen egiaztapen-jardueren pean jartzea eta eskatzen zaion informazio guztia ematea.
5. Ez-betetze kasuetan, jasotako funtsak itzultzea, deialdi honetan ezarritakoaren arabera.

12. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA

Aurkezpen epea amaituta eta eskaera guztiak ebatzi eta gero, emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko iragarki oholean eta web gunean, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren 18. Artikuluan eta aipatu legearen arautegia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikuluen arabera.

13. ARTIKULUA.-DIRU-LAGUNTZAREN ALDAKETA

Diru-laguntzak emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatzeak diru-laguntzen emakidari buruzko ebazpena aldatzea ekar lezake, baldin eta diru-laguntzaren helburua eta xedea bete direla uste bada. Horrelakoetan, oinarri hauetan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira.

14. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZEN ITZULKETA

Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta diru-laguntza ordaindu den unetik aurrerako legezko interesak ere bai, diru-laguntzen erakunde onuradunak deialdi honetan, egilespen-ebazpenean eta aplika daitezkeen gainerako arauetan ezarritako baldintzak ez badituzte betetzen, ez-betetzeen ondorioz etor litezkeen ekintzen kalterik gabe.

Itzulketa kasuak izango dira honakoak:

1. Diru-laguntza jasotzea, horretarako behar diren baldintzak eduki gabe.
2. Ez betetzea diru-laguntzak zeukan helburua.
3. Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
4. Emakidaren ondorioz onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
5. Kontrol-jarduerak egiten ez uztea edo oztopatzea.
6. Garatutako jardueraren kostua gainditzea diru-laguntzak.



15. ARTIKULUA.- ALDI BEREAN BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUK JASOTZEA

Oinarri hauetan deskribaturiko diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste erakunde eta administrazioak eman ditzaketen besde edozein diru-laguntzarekin.

Diru-laguntzen kopuru osoa inoiz ere ez da izango diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

16. ARTIKULUA.- DATU PERTSONALEN BABESA

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoan aurreikusitakoa betez, interesdunak emandako datuak dagokion prozedura edo jarduketan aurreikusitako helburuetako baino ez dira erabiliko.

Datu horiek inoiz ere ez dira tratatuko edo hirugarren pertsonari emango, eragindako pertsonaren berariazko baimenarekin ez bada, edo aipatu legearen 6.2 eta 11.2 artikuluetan aurreikusitako kasuetan ez bada (1999ko abenduaren 14ko 298 zk-ko EAO).

Aipatu 15/1999 Legean xedaturikoa betetzeko, datuak ematen dituenak, edozein unetan erabil dezake, datuok eskuratzeko, zuzentzeko, deusezteko eta aurkatzeko eskubideak, arauak ezartzen duen moduan.

17. ARTIKULUA. ARAUDI ERREGULATZAILEA

Oinarri hauez gain, diru-laguntza hauek arautuko dute azaroaren 17ko Diru-laguntzen 20/2003 Lege Orokorrak eta haren Arautegiak eta 4/1999 Legeak aldaturiko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak.

Aipatutako lege horiek guztiek Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Diru-zaintza alorrean eskuratu daitezke.